

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure **proiektuaren bezeroak** bitan berezi ahal dira, alde batetik taldean jolastuko duten futbolariak eta beste alde batetik partiduen ikusleak.

Argi dagoenez, futboleko interesatuta dauden aniztasun funtzionaleko pertsonak izango dira gure **jokalari potentzialak**. Gure jolariak, arazo mentalak daukaten pertsonak izango dira bereziki, hala nola, sindrome de Down daukatenak. Jokalari hauen **ezaugarriak** hurrengoak izango dira: adingabeak ezin izango dute futbol taldean jolastu baina **18 urtetik gorakoak** bai, edozein adinekoa 18tik gora. **Gizonak nahiz emakumeak klubean jolastu** ahal dute, generoa ez da bereizgarria guretzako, beraz, ez ditugu bi talde egingo, talde berdinean jolastuko dute. Jokalari gehienak **Leioakoak eta inguruko herrikoak** izango dira baina kanpotik datozen futbolariak ere jolastu ahal dute.

Futbola gustatzen zaien pertsonak taldearen partidua ikustera etorriko dira ere (**ikusleak**). Printzipioz, **jokalarien lagunak** edo **familiartekoak** izango dira. Leioako jendea edo inguruko pertsonak ere etorriko dira. **Aurkarien jarraitzaileak** edo aurkarien lagunak eta familiartekoak ere ikusleak izango dira. Jokalariak bezala ez daukate ezaugarri berezirik izan behar kiroldegira etortzeko, hau da, adina, kokapena edo nongoa zaren ez dauka garrantziarik.

